

## Denboraldia pausen Iratirentzako

2008-(e)ko junioren 26-(e)an

Asteburu honetan jokatuko da Xininen (Txinan) Munduko Kopako lehenbiziko proba. Patxi Usobiaga eta Ramon Julian bertan daude jadanik aurtengo denboraldiari hasiera emateko prest. Gogotsu eta indartsu. Niretzako, ordea, une honetan denboraldia pausen dago. Orain dela pare bat hilabete min hartu nuen eskumako eskumuturrean (izen teknikoa fibrokartilago triangeluarraren haustura da). Hasieran ez nion garrantzi gehiegi eman nahi izan, aste batzuetako kontua zela uste nuen, baina, asteak luzatuz doaz eta ni ere errealista izaten hasi behar naiz. Munduko kopako hasierako bi probatan ez dut parte hartuko, ez Txinan ezta Chamonixen ere. Nire esperantzak une honetan irailleko txanpa horretan ditut jarriak. Bestetik azken berri batzuk ere badatoz Taipeko probatik. Badirudi azken momentuan bertan behera geratu dela proba. Baja honen ondorioz, aurtengo Munduko Kopan 6 izango dira jokatuko diren probak. Atzerapen txiki bat, egia esan, aurrera bidean doan kirol eskaladarentzako.